

BESTAK ETA KANTA EZ-SEXISTAK SUSTATZEKO DEIALDIA

Hondar urteotan hainbat artikuluk erakusten digute musikak gure sozializazioan duen eragina. Kasu aunitzetan maiz aditzen ditugun kanten-letrek mezu sexistak ez ezik harreman bortitzak ere sustatzen dituzte.

Baina aldi berean, badaude ere eraldatzaile, berdintasunezko erlazio eta indarkeriaren kontrako mezuak transmititzen dituzten kantak. Sustatu dezagun guztion artean hauen erabilera!

Besta giroan aditzen dugun musikak maiz hedatzen dituen mezu matxistekin kezkatuak, bestetan paratzen ditugun kanten letren gainean hausnartzea proposatu nahi dizuegu, bakotzak bere esku-hartze eremutik berdintasuna eta indarkeria matxistarik gabeko jai-guneak sustatu ditzagun.

Horretarako, gazteekin batera prestatutako kantu zerrenda batzuk proposatu nahi dizkizuegu, sexismoa baztertu eta emakumeek musikan duten tokia aldarrikatzen duen musikari lehenasuna eman diezaiozun. Hemen aurkituko dituzue rap, rock, reggaetoi, heavy edo ska generoetako kanta desberdinak. Izan ere, musika matxista ez da existitzen, musika estilo bat edo bertze ez da bere horretan matxista, hauen bidez hedatzen den mezuan dago koska. Egin dezagun gure esku dagoen guztia!

Hala, musika eredu berriak ikusgarri eginen dituen kantu zerrendak aurkituko dituzue hurrengo loturetan, ostatuek eta herritar guztiek, edozein girotan mezu sexistarik ez hedatzeko eta giroa balore positiboak sustatzen dituzten kantuen bidez eraikitzeko.

Erabili erreprodukzio zerrenda hauek eta elikatu zure erreprodukzio zerrendak balio positiboak, berdintasuna eta indarkeriarik eza sustatzen duten abestiekin!!

BELDUR BARIK BBPLAYLIST:

<https://cutt.ly/imWkVF2>

BELDUR BARIK 2021:

<https://cutt.ly/8mWkNln>

BELDUR BARIK EUSKARAZ:

<https://cutt.ly/UmWk1Zq>

ONGI PASATU, PASATU GABE!

Udaleko Berdintasun saila eta Baztango Talde Feminista



Baztango
Udala